

2020KO JARDUEREN TXOSTENA

Salmentak guztira 5.376 milioi eurotara iritsi dira, eta %2,1 handitu

**EROSKI-K % 8,6 HOBETU DITU ELIKAGAIEN
SALMENTAK ETA IGO EGIN DU BERE MERKATU
KUOTA IPARRALDEAN 2020AN**

- Espainia iparraldean bere kuota igo zuen %13tik gora, eta bigarren operadorea izan zen merkatu horretan (Galiziatik Balearretaraino)
- *Online* negozioaren salmentek %82ko igoera izan zuten iparraldean urte amaierarako, eta eremu horretako merkatu kuota %20 baino gehiago igo du
- EROSKI 995 milioi euroren erosketak egin zizkien tokian tokiko ekoizleei, aurreko urtean baino %13 gehiago
- Taldean 900 lanpostu inguru sorrarazita amaitu zuen urtea, eta jada kasik 30.000 laguneko taldea du, horietatik herena bazkideak
- Taldeak eta bezeroek 2020an 12 milioi eurotik gora eman zituzten dohaintzan askotariko elkartasun ekimenetarako, horietatik %70 EROSKI jarri zuen

Elorrio, 2021eko apirilaren 29a.- [EROSKI](#) taldeak %2,1 hobetu zituen iaz bere salmenta gordinak, 5.376 milioi eurotaraino, COVID-19ak elikaduraren arlokoak ez diren negozioetan kalteak eragin bazituen ere —hipermerkatuetako elikaduratik kanpoko atalak, bidaiak, kirol dendak eta gasolindegia—. Batez ere sektore horietan erasan zuen pandemia garaian, mugitzeko eta irekitzeko murriztapenak zirela medio. Nabarmenezkoa da, ordea, taldearen elikadura negozioak eboluzionatu egin zuela, eta 5.067 milioi euroren salmenta gordinak izan zituela, %8,6ko hazkundearekin. Gainera, salmentaren azalera 40.000 metro koadro garbitan murriztuta —gehiena iparraldeko eremutik kanpo— lortu zuen fakturazioaren hazkunde hori.

Era berean, EROSKI bere posizioa indartu du Espainia iparraldean duen merkatu kuota %0,3 igota %13,3raino, eta elikagaien arloan bigarren banatzaile gisa jarrita eremu horretan (Galiziatik Balearretaraino). Hor kontzentratu du orain arte 'Zurekin'

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Tel: 946 211 214

Tel: 944 158 642

comunicacion@eroski.es

Online prentsa aretoa

eredurantz egindako eraldaketa, eta eremu hori indartzea erabaki du EROSKI bere hedapenerako lehentasunezko zat jotat.



Salmentetan izan duen erantzun on hori bera ikusi du *online kanalean ere*, bere operatibitatea uneoro eduki baitzuen martxan pandemiak iraun bitartean eta lau bider handitu baitzuen bere gaitasuna urteko lehen seihilekoan. Hala, %82ko salmenta hazkundearekin itxi zuen 2020a, eta %20tik gorako merkatu kuotaekin. Taldearen kanal digitalak, [EROSKI Online](#) eta [Capraboacasak](#) lau bider handitu zuten beren zerbitzu kopurua 2020ko ekitaldian. Kontsumitzaileek EROSKIren Interneteko denda aukeratu zuten Espainiako *online* supermerkatu onena laugarren urtez jarraian.

Iaz, EROSKI frankizia erako 52 denda ireki zituen, eta 20 denda propio elikagaien eremuan. Gainera, 92 saltoki eraldatu zituen belaunaldi berriko 'Zurekin' denda eredura.

Gizartean duen inpaktu ekonomikoa handitu zen

Tokiko ekoizleen erosketak %13 igo dira, eta 995 milioi eurotara igo da kopurua. Nekazaritzako ekoizleen 2.400 ekoizle txiki baino gehiagoren 20.692 erreferentzia merkaturatu zituen EROSKI tokiko produktuaren aldeko politikaren barruan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Tel: 944 211 214

Tel: 944 158 642

comunicacion@eroski.es

Online prentsa aretoa

Pandemiak markatutako ekitaldian, EROSKI hitzarmenak egin zituen bere jarduera gauzatzen duen eskualdeetan, nekazaritzako ehunka ekoizle txikiri eta kooperatibari lagundu zietenak. Ekoizleok beren ohiko salmentak kanalak galdu zituzten (errestaurazioa, kolektiboak...) osasun alerta zela medio, eta bere ekoizpen sailak merkaturatzen laguntzea izan da helburua. Alde horretatik, lehen sektoreari laguntzeko lankidetza sistema bat garatu zuen, haien soberakinak bere denda sarean saltzeko.

Enpleguari dagokionez, 900 lanpostu inguru sorrarazi zituen taldeak 2020an, eta 29.806 lagunetara igo du bere lantaldea, aurreko urtean baino %3 gehiago. Horietatik 259 sartu dira kooperatibara bazkide langile gisa; hala, 8.954 lagun dira orain, 2019an baino %3 gehiago.

Iraunkortasunarekin duen konpromisoa ardatz estrategikoetako bat da EROSKIrentzat, eta iaz mugarri garrantzitsuak erdietsi zituen lerro horretan. Bestek bestea, lehen izarra eskuratu zuen [Lean & Green](#) proiektuan CO₂ emisioak %20 gutxitzeko helburua gainditzeagatik logistika eta garraio prozesuetan; gainera, animalia ongizatearen ziurtagiria lortu zuen, eta ingurumen gehiago errespetatzen duen ontzi bat atera EAEn, Nafarroan, Galizian eta Balearretan saltzen duen tokiko esne markarako. 2020an, marka propioko produktu freskoen eta elikagaien gama ekologiko berria ateratzen hasi zen. Bestalde, EROSKI bere markako produktueta ingurumen arloko adierazpen bat ezarri izanak aitortpena jaso du, 2020an nabarmendu diren hogeitaz berrikuntzetako bat izan dela adierazi baitu Espainiako Kontsumo Handiko Berrikuntza Behatokiak.

Elkartasuna ere handitu egin zen 2020an

COVID-19ak eragindako krisi soziosanitarioa dela medio, jende zaurgarrienaren beharrak areagotu ditu. Bezeroen laguntzaz, EROSKI 2020an 12 milioi euro baino gehiago banatu zituen askotariko kausetarako, nabarmentzekoak direlarik COVID-19ak jotako kolektiboetakoak. Zenbateko horretatik %70 EROSKI berak eman zuen. Gauzaturiko ekintzen artean, dirua bildu zen krisi honetako kolektiborik zaurgarrienetako baten elikaduran eta higienez laguntzeko, hala nola adingabeak zaintzen dituzten eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan diren familiak, pandemiak krisia areagotu baitie; horien bitartez, 850.000 euro gehiago biltzea lortu zuten; arropa eman zuen dohaintzan etxerik ez dutenentzat, eta milioi bat maskara baino

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Tel: 944 211 214

Tel: 944 158 642

comunicacion@eroski.es

Online prentsa aretoa

gehiago adinekoentzat eta behartsuenentzat, zeinak zahar etxeen, udalen eta gizarte erakundeen bitartez banatu baitziren. Ekimen horiek gauzatzeko, elkarlanean jardun zen [Cáritasekin](#), [Gurutze Gorriarekin](#) eta tokian-tokian ongintzan aritzen diren beste 200 pasa erakunderekin.

Gainera, lehen mailako beharretarako produktuen eskuragarritasuna erraztu zuen 15.000tik gora "elkartasun txartelen" bitartez. Txartela erakunde publikoen esku jarri eta 6,5 milioi otordu baino gehiagoren adinako elikagaiak eman zituen dohaintzan Elikagai Bankuentzat. Era berean, EROSKI ["Elkartasun Zentimoen"](#) programa ezarri zuen; horren bitartez, bezeroek hala nahi badute, lagundu dezakete aldika berritzen diren elkartasun kausen alde, eta bezeroenari EROSKI ekarpen gehigarri bat egiten dio. Azarotik hona, 9,8 milioi pasaren mikrodohaintzei eta EROSKIren ekarpenei esker, 1,5 milioi euro baino gehiago bideratu dira 85 gizarte erakunde baino gehiagotara, familia zaurgarrientzat, minbizia duten haurrentzat, indarkeriaren biktima emakume eta haurrentzat, gaitz neurodegeneratiboek jotako pertsonentzat eta garapen bidean diren haurrak txertatzeko.

Erosketa ingurune seguruan

Pandemia hasi zenetik, EROSKIren lehentasuna izan da bezeroei eta langileei ingurune seguruak jartzea. [Clean Site](#) zigilua lortzearekin, saltoki guzti-guztiak ingurune seguru gisa identifikatu ditu. [Bureau Veritasek](#) ematen du zigilua, hirugarren alde edo alde independente gisa; horrek jardunbide onak eta ildo horretan egindako eginahalak berresten ditu. EROSKI segurtasun eta prebentzio neurriak indartu zituen, baita saltokien garbitasuna ere. Hala berean, indartu egin dira arreta pertsonalak, edukieraren kontrola, segurtasun distantzien kudeaketa eta norbera babesteko ekipamenduen eskuragarritasuna eta babes neurriak. Era berean, garbitasuna eta desinfekzioa indartu eta maiztu egin ziren. Gaur egun oraindik eusten die neurri horietako gehienei.

Gainera, EROSKI eginahal bat egin zuen bezerorik zaurgarrien alde, hala nola adinduak, desgaituak eta haurdunak, baita osasun langileen alde ere. Alde horretatik, lehentasunezko ordutegiak eta ordainlekuak ezarri zituen haientzat; etxera doan bidaltzeko sistema ere indartu zuen telefono eta *online* bidez milaka adinekorentzat, eta segurtasun protokoloak garatu zituen muturreko prebentzio neurriak ezartzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa